

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

Dirubilketa Zerbitzua

Ondasun higiezinak enkantean ateratzeko probidentzia eta iragarkia

Javier López de Calle Ochoa de Eribe, Arabako Foru Aldundiaren Dirubilketa Zerbitzuaren burua.

Jakinarazten dut: Arabako Foru Ogasunaren, Lapuebla de Labarcako Udalaren eta Arabako Errioxako Urkideztaren aldeko zordunketak kitzatze xedez, Arabako Foru Aldundiaren derrigorrezko dirubilketari loturik izapidetzen ari den 2009EXP48095705 zenbakiko premiamendu espediente betearazlearen esparruan, Ogasuneko zuzendariak ondasun higiezinak enkantean ateratzeko erabakia eta probidentzia eman zituen, eta zordunari enbargatutako ondasun higiezinak enkante publikoan besterentzeko baimena eman. Enkantea egiteko data 2024ko irailaren 10ean finkatu da, 12:30ean, Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketako lokaletan (Probintzia plaza 13, behea, Vitoria-Gasteiz). Enkantea izapidetzean eta gauzitzean, Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketarako Araudi Orokorra onesten duen Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren 176., 177. eta 178. artikuluetako xedapenak bete behar dira.

Hori guztia betez, honako iragarki hau argitaratu da, eta enkantean lizitatzaille gisa parte hartu nahi dutenei ondokoa jakinarazten zaie:

1. Besterendu beharreko ondasun higiezinak, honako hauek dira:

Sorta bakarra.

Hirikoa: Lau zenbakia. Merkataritzako lokala, beheko solairuan, hiru zenbakiko lokalaren eskuinean, Logroñoko Ingeniero La Cierva kaleko 3 zenbakian kokatuta dagoen etxean, Ingeniero La Cierva eta Oviedo kaleetatik sartuta, kantoibakiarekin bi kaleetara. Hogeita hamabi metro eta berrogeita hamabi dezimetro karratuko azalera erabilgarria du, eta 34,20 metro karratuko azalera eraikia. Mugak: iparraldean, bost zenbakiko lokala; ekialdean, Oviedo kalea; hegoaldean, Ingeniero La Cierva kalea; eta mendebaldean, hiru zenbakiko lokala. Gainera, hego-ekialdetik, Ingeniero La Cierva eta Oviedo kaleetako kantoibakia. Higiezinaren ehuneko osoko eta berrogeita hamabost ehuneko partaidetza kuota du.

Katastro erreferentzia: 5611310WN4051S0004ZO.

Erregistroko inskripzioa: Logroñoko 4. Jabetza Erregistroan inskribatuta dago, Logroñoko 2013 liburukian, 26 liburuan, 217 folioan, 21461 erregistro finkan. Idufir: 26011001220036.

Finkaren gaineko aurreko kargak, eduki ekonomikorik gabeak.

Elkargi, Sociedad Garantia Reciprocaren aldeko Hipoteka, 1999ko apirilaren 20an Fernando José Rivero Sánchez-Covisa, Guardiako notarioak baimendutako eskrituran eratua. 1999ko maiatzaren 28an inskribatu zen, eta 1. inskripzioa eragin zuen. Elkargi EBSren idazkian. 2023ko otsailaren 8an jakinarazi zuten hipoteka hori ekonomikoki kitzatuta zegoela, hura eratu zen berme abala ere kitzatu zelako.

Ondorioz, ez dago espediente honetatik sortutako eta foru aldundiak egindako enbargo idatzoharra baino lehengoko karga ekonomikorik.

Enkantean gutxieneko tasatzat erabiliko den balioespina: 29.268,00 euro.

2. Lizitatzailleek aski iritzi beharko diete espedientearen bildutako jabetza tituluei eta jabetza erregistratzaileak emandako jabari eta kargei buruzko ziurtagiriei. Hala, interesa duten guztiek horiek aztertu ahalko dituzte enkantearen aurreko egunera arte, derrigorrezko dirubilketan, eta ez dute beste agiri batzuk eskatzeko eskubiderik izango.

3. Besterentzekoak diren ondasunak arestian zehaztutakoak dira eta enkante tasatik beherako posturak edo eskaintzak ez dira onartuko. Gainera, ondoz ondoko eskaintzek 1.000,00 euroko tarteen arabekoak izan beharko dute.

4. Ez dago inskribatuta foru aldundi honen alde idatzitako eskubidearen aurreko eta lehen-tasunezko kargarik, besterendu beharreko ondasunei eragiten dienik.

5. Enkante publikoan lizitatzaille gisa parte hartu ahalko dute zuzenbidearen arabera jarduteko gaitasuna duten eta jardun hori berariaz eragozten duen legezko eragozpenik edo murrizketarik ez duten pertsona fisiko edo juridikoek, behar bezala identifikatuta.

6. Enkantean lizitatzaille gisa parte hartu nahi dutenek nahitaezko berme gordailua eratu beharko dute mahaiaren aurrean, gutxienez, adierazitako enkante tasaren ehuneko 20koa, eta ohartaraziko da gordailu hori irmo sartuko dela Foru Ogasunean, adjudikaziodunek errematearen prezioa ordaintzen ez badute, adjudikazioaren eraginkortasuna galarazteak gordailu horren zenbatekoan eragiten dituen kalte handiagoei lotutako erantzukizunari kalterik egin gabe.

7. Ondasunak adjudikatu aurreko edozein unetan etengo da enkantea, baldin eta eskuratu nahi diren zorpekoak ordaintzen badira.

8. Lizitatzailleek gutun azal itxian bidali edo aurkeztu ahal izango dituzte eskaintzak, iragarki hau argitaratzen den egunetik enkantea hasi baino ordubete lehenagora arte. Eskaintza horiek gehienekoak izango dira, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean erregistratuko dira, ordua adierazita; horrez gain, lizitatzeko gordailuaren zenbatekoa jasota daukan eta foru aldundiaren alde egindako txeke adostuarekin batera aurkeztu beharko da. Lizitatzaillearen NANA eta, hala badagokio, haren ordezkari egiaztatzen duen eskritura publikoa edo agiria ere aurkeztu beharko dira. Dokumentu horien ordezkari, kopia konpultsatuak edo erkatuak aurkeztu ahalko dira.

Gutun azal itxia aurkeztu duten lizitatzailleak ordezkatu dituzten mahaiak, eta eskaintza handiagoak egin ditzake haien izenean eskaintzan ezarritako gehieneko muga gainditu gabe; dena den, lizitatzailleek ere parte hartu ahalko dute lizitazioan, gutun azalean ageri den eskaintza baino handiagoa eginda.

Gutun azal itxian aurkeztu den eskaintzarik handiena ez badator bat tarteren baten zenbatekoarekin, aurreko tartearen zenbatekoaren arabera egin dela ulertuko da.

Gutun azal itxian aurkeztutako eskaintza bat baino gehiago badator bat eskaintzarik onenarekin, lehenengo erregistratutakoari emango zaio lehentasuna.

Gutun azal itxian eskaintza bat baino gehiago aurkezten badira, guztietan bigarren handienetik aurrerako eskaintzak onartuko dira, eta beste eskaintzarik ez badago, bigarrenetik gorako tartean egin den eskaintzarik handiena izango da adjudikazioduna.

9. Errematatzaileek adjudikazio ekitaldian bertan edo hurrengo bost egunen barruan ordaindu beharko dute eratutako gordailuaren eta adjudikazioaren prezioaren arteko aldea.

10. Enkantea lehen lizitazioan adjudikatu gabe geratzen bada, enkante mahaiak, komenigarritasunari buruz eztabaidatu ondoren, honako aukera hauetako bat erabaki ahalko du:

a) Ekitaldi berean adjudikatu gabeko ondasuna eskaintzeko bigarren lizitazioa egitea. Erabakia berehala iragarriko da, eta tasa berria berdintzen duten proposamenak onartuko dira. Tasa hori lehen lizitazioaren enkante tasaren ehuneko 75ekoa izango da. Horretarako, ordu erdiko epea irekiko da lizitatu nahi dutenek besterentzekoa den ondasunaren enkante tasa berriaren

ehuneko 20ko zenbatekodun gordailua era dezaten; aurretik egindako gordailuek xede horretarako balioko dutelarik. Bigarren lizitazioa lehenengoaren formalitate berekin egingo da. Adjudikatu gabe geratzen diren ondasunak Arabako Lurralde Historikoko Dirubilketako Araudi Orokorraren 180. artikulua xedatzen duen zuzeneko adjudikazioaren izapidearen arabera adjudikatuko dira.

b) Ondasunak zuzenean adjudikatzeko izapideari ekitea, 180. artikulua ezarritako prozedurari jarraikiz.

11. Eskualdatzeari loturiko gastu eta zerga guztiak, eskualdatzearen gaineko notariotza gastuak barne, eta lehentasunezkoak ez diren kargen kitapenari loturikoak adjudikaziodunaren konturakoak izango dira. Jabeen erkidegoarekin izan daitezkeen zorren egoerari dagokionez, direla etxebizitzarenak, direla lokalarenak, adjudikaziodunak berariaz salbuesten du Arabako Foru Aldundia, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1996 Legearen babesean (apirilaren 6ko 8/1999 Legeak aldatu zuen lege hori), jabeen erkidegoaren zorren egoerari buruzko ziurtagiria aurkezteko betebeharretik, eta adjudikaziodunaren konturakoak izango dira ordaintzeke dauden gastuak.

12. Arabako Foru Aldundiak, Lapuebla de Labarcako Udalak eta Arabako Errioxako Urkidetzak besterendu gabeko ondasunen adjudikazioa eskatzeko eskubidea izango dute, Dirubilketako Araudiaren 188. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren arabera.

Oharra: Hartzekodun hipotekario eta pignorazioak, kanpotarrak edo ezezagunak, halakorik balego, jakituntzat joko dira ondorio guztietarako iragarki hau dela bide, eta edukiarekin ados ez badaude, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko dute organo beraren aurrean, edo, bestela, erreklamazio ekonomiko-administratiboa Arabako Lege eta Administrazio Erakundearen aurrean, hilabeteko epean, agiri hau argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 26a

Dirubilketa Zerbitzuaren burua
JAVIER LÓPEZ DE CALLE OCHOA DE ERIBE